

Hizlaria

Koldo Saratxaga

Enpresa-kudeaketa kontsultore

EKONOMIA

Laudioko Oroimen Kolektiboaren Berreskurapenako Bilakaera Ekonomikoa izenpea duen kapitulua aztertzeko, azken urte hauetako euskal enpresaririk aipagarrienetariko baten presentziarekin, Koldo Saratxaga jaunarekin, gozatu ahal izan dugu. Sopuertako bizkaitar hau Irizar enpresako aldaketaren egilea izan zen, eta horren bitartez, Irizar lantegiak arrakasta haundia ezagutu zuen. Hori dela eta, mentalitate eta organizazio-eredua aldaketaren bitartez lor daitekeen ontasun ikur bihurtu da organizazio hau.



Hizketaldia hasi baino lehen, Koldok VILLOSAn bizi zituen urteak oroitu zituen. Orduan, egoera ekonomiko eta sozialak oso ezberdinak ziren. Azken urteotan, ordea, laudioar gizarteak eta ekonomiak aldaketa nabariak jasan dituzte. Hau dela eta, gonbidatuak oroimen kolektiboaren berreskuperapenaren lana goraiatu zuen, bere aburuz, perspektibarik gabe mundua aldatu den jakitea ezinezkoa izango litzateke.

Koldo Saratxagaren ustez, gaur egun, enpresa handi batzuek hartzen dituzten erabakiek hoztasuna dute ezaugarri. Erakunde asko erabakirik garrantzitsuenak hartzen dituen boterearen menpe daude eta, botere hau, bai pertsona zein erakunde hauengandik oso urrun dago.

Bere hizketaldian Koldo Saratxagak, guztiok denbora luzea igaro dela uste arren, azken 50 urteak, unibertsoaren bizitzarekin alderatuz gero, oso epe laburra osatzen dutela ziurtatu zuen. Duela 50 bat urte, ekonomia nekazaritzan oinarritzen zen. Ez da horrenbeste denbora igaro Vidrieras de Llodio martxan jarri zenetik; laudioar gizarterako inflexio-puntua izan zen eta langileria eta inmigrazioa bezalako kontzeptu berriak ekarri zituen.

Gaur egun, egoera ekonomiko eta soziala asko aldatu dira. Laudion, non ekonomia batez ere industrian oinarritzen den, zerbitzuen mundura jo

behar dugu, hori bai, oinarri industrialala ahaztu gabe. Honek lehiakorrigo bihurtuko gaitu eta perspektiba ekonomiko berriak sortzen lagunduko gaitu. Dena den, etorkizuneko aldaketa ekonomikoen benetako egileak pertsonak izango dira; pertsona bakoitza bakarra baia eta bakarra ere bere ekarpena, bai gizarterako zein erakunde ekonomiko baterako.

Hizketaldia bukatu zenerako, ezagupenari ematen dion garrantzia argien geratu zen kontzeptua izan zen; esperientziak ezagupena ematen digu eta pertsonak bakarrik daukagu gaitasun hori. Gaur egun ez da teknologia enpresak lehiakorrigo bihurtzen dituen, hau edonoren esku baitago. Koldo Saratxagak erakunde-aldaketa proposatzen du, pertsonak garrantzi handiagoa merezi dute. Berebizikoa da, gonbituaren ustez, pentsamolde aldaketa hau, gizartea eta ekonomia asko aldatu dira eta ez da hala erakundeen kasuan.



PUBLIKOAREN PARTE-HARTZEA

Koldoren izaera dela eta, parte-hartze eta galderak arlo ekonomiko eta sozialaren inguruan bere iritzia ezagutzera bideratu ziren.

Koldok etorkizunari aurre egiteko giltza harremanetan dagoela adierazi zuen, hauek baitira pertsonak aberastu eta hauen ezagupena handitzen dituztenak. Aldi berean, erakundeak aldatu beharko dira eta garai eta sentimen berriei moldatu, zeren:

“ez baditugu erakundeak, hoditeriak, aldatzen, hoditeriak beste batzuk ipiniko dizkigute”